



**2015EKO OTSAILAREN 5EKO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamabosteko otsailaren bostean, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Haizea Mendia Iztueta, Joseba Imanol Aran Barandiaran, Urtzi Iruin Arruti, Ane Irastortza Izagirre eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Kepa Goenaga Alikostes, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Milagros Madrazo Rada, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Patxi Albisu Estensoro zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTAK.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2014ko azaroaren 27an eta abenduaren 17an egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

**II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-**

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

**III.- 11 H.J.A. -ANTZALDE-KO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.-**

2014ko abenduaren 5ean egindako Tokiko Gobernu Batzarraren akordio bidez, 11 H.J.A.n "Antzalde" kokatutako eraikinean alineazioak aldatzeari dagokion Xehetasun Azterketa hasierako izaeraz onartzea eta jendaurreko erakustaldi tramitea irekitzea erabaki zen. Aipatu Xehetasun Azterketa Manuel Hernandez Agrak sustatutakoa da eta Nekane Guede Herrero arkitektoak idatzitakoa, eta 2014ko azaroko data darama.

Dokumentua 20 eguneko denboraldiz jendaurrean erakusgai egon da, iragarkiak 2014ko abenduaren 11ko Gara eta Berria egunkarietan eta abenduaren 16ko 7 zbk.dun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta interesatuari banakako jakinarazpena egin ez. Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.



Guzti honen aurrean, Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuarekin honako hau erabakitzen du:

- 1.- 11H.J.A. -Antzalde-n kokatutako eraikinean alineazioak aldatzeari dagokion Xehetasun Azterketa behin-betiko izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa interesatuei jakinaraztea eta akordioaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

#### IV.- LAZKAOKO HERRI BARATZA URBANOAK KUDEATZEKO ARAUDIA.-

"Lazkaoko Herri Baratzak Urbanoak" programa, zoru eta uren erabileraren eta toki-eko espezieak babesteko planifikazio eta kudeaketa, eta formazio eta ingurumen kontzientziazio tresna bat da. Horretarako ahalik eta baratzagintza ekologikoena sustatu nahi du hezkuntzaren esparruan, praktika jasangarri egokirako baratzak, herri ortuak eta lursail banku txikiak sortuz.

Aisialdiko baratzagintza herriko biztanle askoren artean jarduera geroz eta ugaria goa da, batik bat adinekoen kasuan; hori dela eta, Lazkaoko biztanleek erabiltzen dituzten baratz txikiak sustatzea proposatzen da, familia-kontsumoari zuzendutako produktuak lortzeko.

Udalaren konpromisoa, programarako sarbidea interesdun guztientzat erraztean datza.

Zerbitzuaren erabiltzaileen aldetik, errespetatu beharra dago ingurumenari dagokion araudia, zentzua ematen baitiote programari eta auzoko komunitate baten barruan garatu beharreko ustiapenak direnez gero, ezinbestekoa da erabiltzaileen eskubide eta betebeharren araudi hau erabiltzea jardunbidea arautzeko.

"Lazkaoko Herri Baratza Publikoak Kudeatzeko Araudia" Udaleko ingurumen batzordean landua izanik, eta bere hasierako onarpena emateko aurkezten da Osoko Bilkurari.

Une honetan Patxi Albisu Estensoro zinegotzia (EAJ) bertaratu da.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du baratzak non kokatzen diren ikusita, kokapen hori non izan hausnarketarik egin gabe aukeratua izan dela eta hori horrela izanda beraiek abstenitu egingo direla.

Guzti honen aurrean Osoko Bilkurak, aldeko 4 boto, aurkako botorik gabe eta 3 abstentzioz (EAJ), honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Lazkaoko Herri Baratza Urbanoak kudeatzeko araudiari hasierako onarpena ematea.
- 2.- Espedientea jendeaurreko erakustaldian jartzea 30 eguneko epean, iragarkiak udal-erretxeko iragarki oholean eta Gipuzkoako Aldizkarian argitaratuz.





- 3.- Jende aurreko erakustaldi epean inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, onarpen akordioa behin betikoz hartua joko da, espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

#### V.- ERREGISTRO ZIBILEN PRIVATIZAZIOAREN INGURUKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Erregistro Zibilak gure bizitzaren gertaera garrantzitsuenak jasotzen ditu. Bertan erregistratzen dira norberaren jaiotza, ezkontza, seme-alabak, eta heriotza. Baita hasierako inskripzioa aldatzea eragiten duten bizi gorabeherak jasotzeko espedienteak ere izapidatzen dira hor: aitasun edo amatasun aitortzea; adopzioa; ezgaitasun-deklarazioa; tutoretzak, izen, abizen edota sexu aldaketak; nazionalitatea eskuratzea; pentsio publikoak edo aseguruak edo osagai pribatuak edo enpresarenak kobratzen jarraitu ahal izateko gure nagusiek hain beharrezkoa duten bizi-agiria ematea. Horregatik, funtzionario publikoak izan dira Erregistro Zibila eraman dutenak betidanik; izan ere, duela zenbait urte Justizia Ministerio (edo erkide autonomiko Justizia saileko) funtzionarioek bermatzen dituzte jasotako datuak eta, era berean, legalki dagozkion pertsonari haien eskuratze libre eta doakoa.

Bake epaitegiek herritarrei Justizia administrazioa hurbiltzen diete, alderdi diren edozein prozeduraren inguruko informazio orokorra eskaintzen dietelako, eta honez gain, Erregistro Zibileko izapideak betetzen dituztelako. Horrela, herritarrek ez dute horrelako tramiteak egiteko hiriburuetara joan behar, hainbat herritan bake epaitegia dagoelako.

Azken urteetan, gainera, Herri Administrazioak diru inbertsio handia egin du Erregistro Zibilaren jarduna modernizatzeko: zerbitzu honi dagozkion dokumentuak informatizatu eta digitalizatu eta bertan dauden datu guztietarako sarbide eta erabilpen segurua eta kontrolua izateko programa martxan jarri du. Zehazki, diru publikotik 128 milioi euro baino gehiago inbertitu dira teknologia berri hauetan.

Alderdi Popularraren gobernuak Erregistro Zibila esku pribatuetan utzi nahi du, horren kudeaketa merkataritza erregistratzaileei emanez, bake epaitegien eta gaurko barruti judizialen existentzia zalantzan jarriz. Horrela jasotzen da Botere Judizialaren Lege Organikoa eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legea aldatzeko aurreproiektuetan, eta uztailaren 4ko 8/2014 Errege Dekretu Legean.

2014ko otsailaren 20an, PNV-EAJ, Euskal Herria Bildu eta Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra alderdien babesarekin, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamena onartu zuen Erregistro Zibila gaur egun dagoen moduan mantentzeko, hiritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskaintzeko.

Zehazki, privatizazioak ekarriko ditu:

- 1.- 3.500 langile publikoen lanpostuen galera. Hauek prestatuak izan dira, eta gaitasuna eta espezializazioaren jabe dira Erregistro Zibil arloan.
- 2.- Bake epaitegiak egungo zereginenez hustea lehen neurria da, euren desagertzea bilatuz gerokoan. Norabide horretan, Botere Judizialaren Lege Organikoan eta Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzko Legean egindako aldaketek aukera ematen du.

ten diete, ez soilik bake epaitegiak desagertzeko aukera, baizik eta barruti judicial gehienak ere, epaitegiak hiriburuetan soilik kokatuko dituztelarik.

- 3.- Tasak jarriko dira zerbitzua ematearen truke. Egia da 8/2104 Errege Dekretu Legeak esaten duela zerbitzua doakoa izango dela, baina Merkataritza Erregistratzaileak, lanbidera sartzeko erari eta monopolio gisa duten zereginari dagokienez, funtzionario publikoak izan arren, muga-zergen bitartez kobratzen dute egindako zerbitzua; eta etorkizunean, Erregistro Zibilean egin beharreko izapideak ere horien bitartez kobratuko dituzte, hau da, herritarrei nahitaezkoak zaizkien jaiotze bat erregistratu, familia liburu, heriotza, ziurtagiriak, bizi eta egoera agiriak, etab. ... Gainera, lege berriak erregistratzaileen ahalmenak handitzen ditu eta inskribatu beharreko kontuak ikaragarri puzten (edozein ahalorde, helbide inskripzioak, pentsio-planak, testamentuak ...), hauek guztiak, jakina, herritarrek ordaindu beharko dituzte. Horrela, hemendik aurrera Erregistro Zibilak merkatal jardura izango du, eta egite bakoitzak bere salneurria izango du, eta jasotako dirua gutxiengo pribilegiatu horientzat izango da.
- 4.- Datu babesaren segurtasun falta. Merkataritza Erregistroko langileak ez dira funtzionario publikoak baina herritarren datu pertsonaletarako sarbidea izango dute, nahiz eta funtzionario publikoak ditugun isilpeko eta sekretuko betebeharrak ez izan.
- 5.- Azken urteetan Erregistro Zibila modernizatzeko egindako inbertsioa esku pribatuetara pasatuko da, kudeaketaren emate horrek baitakartza baliabide material guztion ematea ere. Baliabide materialak ematea diru publikoa xahutzea da: inbertsioak eginak daudelako, baliabide materialak ordainduak, azpiegiturak eginak eta giza baliabideak kontratatutak, formatuak eta gaituak. Hots, diru publikotik 128 milioi euro oparituko zaie Merkataritza erregistratzaileei euren onerako.
- 6.- Erregistro Zibilean gordetzen diren gure historia pertsonalerako, familiarrerako eta herri gisa dauzkagun datuetarako sarbidea murriztea. Gure arbasoen, haien jatorriaren eta bizimoduaren gaineko informazioa aurki baitaiteke bertan.

Hau guztia dela eta Lazkaoko udalaren Osoko Bilkurari eskatzen dizkiogu:

- ~ Merkataritza erregistratzaileei Erregistro Zibilaren kudeaketa ematen dion uztailaren 4ko 8/2014ko Errege Dekretu Legearen aurka ager dadin.
- ~ Halaber, adieraz ditzan bake-epaitegiak eta gaurko Erregistro Zibilaren bulegoak izan behar direla Erregistro Zibilak kudeatzen dutenak, herritarrei zerbitzu publikoa eta dohainikakoa eskainiz, orain eta betiko.
- ~ Kontutan izanda aipatutako EDLa indarrean sartuko dela 2015eko uztailaren 15ean eta 2014ko otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako ebazpenarekin bat eginda, udal honek eska diezaion Eusko Jaurlaritzari Erregistro Zibila kudeatzeko eta betearazteko eskumenak jasotzeko negoziazioak azkar ditzan.

Lazkaoko EH BILDU"

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du mozioarekin ados daudela.





Honen aurrean, mozia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, onartu egiten du.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak horretarako baimena eman ondoren jendartetik herritar batek hitza hartzen du eta osoko bilkurara zuzenduz, erabakitze eskubidearen aldeko gaiaren inguruan prestatzen ari den ekintza baten azalpena egiten du eta ekimen honetan parte hartzera gonbidatzen ditu udal ordezkariak.

Udal Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

